



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2025eko MARTXOA - 261. zenbakia

Lurra ondo onduta, ziklo berri bati ekiteko

Senpereko Larraldea baserrian egin da 2025 urteko Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Batzar Orokorra. 2024 urteari itxiera eman eta 2025 urteko egitasmoa eta aurrekontua onartu dira.

2024ari ez ezik, Larraldea baserriari ere agur esango dio Bertsozale Elkarteak, eta hori ere izan da Batzar Nagusia bertan egitearen arrazoia. Oier lurramendi koordinatzaileak eta Ainhoa Urien lehendakartzako kideak gidatu dute saioa. Ongi etorri eta esker hitzen atzetik, lehendakartzako kideei eman diete hitza. Bizi ditugun garai arrakalatsu, oldarkor eta sormenerako korapilatsuei egin diete erreferentzia Onintza Enbeitak eta Sustrai Colinak. Baina, testuinguru horretan, Elkarte babesleku ederra dela gaineratu dute. Hori dela eta, Elkartera batzeko deia egin dute.

Lehendakartzak koordinazioari pasa dio testigua. "Azken Batzarretan ohikoa izan da urte mugitua izan denaren mezua ematea," azaldu du lurramendik, eta azkena ere horrela izan dela gaineratu du. Baina, horren gaineratik "lan taldea azalberrituta eta indarberrituta dago". 2025ari begiratzeko, 2018ko Gogoeta

Estrategikoari heldu behar zaiola azaldu du, ibilbidearen erdia egin baitugu dagoeneko.

Gogoeta Estrategikoa bide-orri

Gogoeta Estrategikotik sei urte eta Eraso Matxistei Aurre Egiteko Protokolutik hiru urte pasa dira. "Sortu zenetik izaera ezberdineko hainbat eta hainbat kasu kudeatu dira", azaldu du, eta taldea egotearen beharra azpimarratu du. Erasoen lan taldeaz harago, plan feministak Elkarte osoa zeharkatu behar duenaren mezuarekin itxi du hitzartzea Urienek eta geroaro heldu dio plan feministari Eneritz Urkolak.

Atzetik, alorrez alor, 2024 urteko memoriari eta 2025eko egitasmoei egin diete lekua. Eskuz esku eta ahoz aho esparru bakoitza azaldu dute: Xenpelar Dokumentazio Zentroa eta Ikerkuntza;

Hezkuntza; Sustapena; Hedapena; Komunikazioa; eta, bukatzeko, finantzak.

Zenbakiak politikoak direla azalduta, Ainhoa Urienek Xabi Igoa lehendakartzako kideari eta Aritz Zerain Finantza Berrikuntza arduradunari eman die hitza. Desorekak orekatzeko dagoen dinamikan jarri dute azpimarra, elkar laguntzeko sisteman, eta 2025era begira baikor agertu dira. Zenbakiei ez ezik, egitasmo nagusiei ere jarri dizkiete hitzak jarraian herrialdeetako ordezkariak.

Herrialdeetatik berriz ere begirada altxa eta Urienek itxi du goizeko saioa Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak bizi duen egoerari ilusioz eta anbizioz begiratuta.



**NEREA
ELUSTONDO
PLAZAOLA**

**ANDOAIN. 2025-III-09
SAHARAREN ALDEKO BERTSO
SAIOA.**

Doinua: Gogoratuko zara

Eguerdi on, Bastero kulturaren kabi
hegoalderantz doan
elkartasun hari
honi tiraka gatoz
zentzumenez adi
kein txiki bat egin
nahian Saharari
(honi tiraka gatoz
zentzumenez adi)
hitz berriak jartzera
aldarri zaharrari.

Onartu ditugu 2024ko itxiera eta 2025eko egitasmoa eta aurrekontuak. //XDZ.

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinu-maketazioa: Dixidu Diseinu Grafikoa / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentroa
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus

BABES KUTXA: Urrats txiki bat sortzaileen baldintzak duintzeko bidean

Administrazio publikoak baditu mekanismoak soldatapeko langileen ezintasun puntual edota behin-behinekoren aurrean erantzuteko. Kultur sortzaileen kasuan, ez. Babes Kutxarekin egoera horri erantzun nahi dio Bertsozale Elkartek.

Lanarteak 2025eko urtarrilean argitaratutako Euskal Artisten Lan eta Baldintzen I. Inkesta kuantitatiboaren emaitzek oihartzun bezain beste dardara eragin zuten. Jakina baina isilpekoa denari bozgorailua jartzean gertatu ohi da. Euskal sortzaileen egoera prekarioa dela gordinki erakusten dute datuek. "Kultur eremuan dagoen prekaritateaz jakitun gara, eta guk gure eremuan eragiteko aukera eta beharra ikusi dugu, eta horri heldu diogu", azaldu du Udane Mugerza Salegi Bertsozale Elkarteko sustapen eragileak eta gaineratu du: "Bertsozale elkartearen eginbeharra da bertsolarien, gai-jartzaileen, eta, oro har, sortzaileen lan baldintzak duintzea eta babestea. Sortzez ere halaxe izan zen eta urteak dihardu eginahal horretan". Guzti horretan bidelagun izan dugu Lanartea.

Bide berriak urratzeko nahia eta ardura begi onez ikusten ditu Unai Iturriaga Zugaza-Artaza bertsolariak: "Momentu honetan bertsogintzaren parte garrantzitsua gara jardunean gabiltzan bertsolariak. Bertsozale Elkartek guganako kezka izatea eta proposamenak egiteko ardura hartzea ondo ikusten dut".

Sortzaileek lan egiten dutenean egoera prekarioa dute, baina are okerragoa da lanik egiten ez dutenean. Mugerzak argi du saio kopurutik harago eragin behar dela: "sustapenaz ari garenean, ez gara soilik sustapen kuantitatiboaz ari, baita sustapen kualitatiboaz ere; ahalik eta saio gehien antolatu baino, nola eta nolako saioak antolatzen dira? Ze baldintzatan? Horri ere erreparatu nahi diogu; badagokigu eremu horretan ere eragitea. Eta hor kokatzen dugu Babes Kutxa". Argi du: "oraindik asko dago egiteko".

UNAI ITURRIAGA:

“ Berri ona da: praktikoki izan dezakeen ekarpenagatik, baina baita arazoa bistaratzeagatik ere ”



Udane Mugerza Salegi, Bertsozale Elkarteko sustapen eragilea. //XDZ



Unai Iturriaga Zugaza-Artaza, bertsolaria. //XDZ



Mugerza eta Iturriaga, elkarrizketako une batean. //XDZ

Baina, zer da Babes Kutxa?

Diru poltsa bat da, finean. Irizpide sorta baten baitan, sortzaileen ezintasun puntual eta behin-behinekoei erantzuna emango diona. Labur esanda, soldatapeko langileekin gizarte segurantzak betetzen duen funtzioa beteko luke.

Adibide batekin lurreratu du Mugerzak: "soldatapeko langile batek laneko istripua izan badu, ekarpen ekonomikoa edukiko luke lana egin ezin duen tartean. Sortzaileen kasuan, aldiz, ez da horrela. Afoniko jartzen bada edo ahotsik gabe geratuko balitz, asteburu horretako saioak ez egiteagatik hilabete horretako diru sarreraren zati handi bat galduko luke". Babes Kutxarekin egoera horri erantzun nahi zaio, bertsolariak edo gai-jartzaileak saiora joan ezin duenean, diru sarrerarik gabe geratu ez dadin.

Iturriagak azpimarra jartzen du baldintza horiek oinarritzko eskubide beharko luketenaren ideian: "Babes Kutxarekin ari gara hitz egiten edozein langilek izan ditzakeen arazoez: gaixotasunak, zaintzak... Langile baten kasuan ez dira sindikatuaren bizkar geratzen, beste bide batetik ziurtatuta ditu eskubideok eta ez dira zalantzan jartzen". Iruditzen zaio premia hauek ere soldatapeko langileek dituzten bideetatik estali beharko lituzketela, baina, hala ez denez, Bertsozale Elkarteak erantzun izana ondo ikusten du, besteak beste "martxan jartzeak berak hutsunea bistaritzen duelako".

UDANE MUGERZA:

“ Kultur eremuan dagoen prekarietateaz jakitun gara, eta guk gure eremuan eragiteko aukera eta beharra ikusi dugu ”

Bertsolariek, hainbat arrazoi medio, horrelakoak eskatzeko eta onartzeko zailtasunak izaten dituztela gaineratu du Iturriagak. Izan nolabaiteko independentzia eduki nahi dutelako, lanera gaixorik joatearena barneratua dutelako... Horri erantzunez eta kudeaketa errazte aldera, zuzenean eskatu gabe emango da babes prestazio hau. Iturriagak autokritika ere egiten du: "Nik uste dut gure burua teorikoki ez ezik, praktikoki langile moduan ikusteko ezinbestekoak direla halako elementuak. Gure buruari ere galdera hori egitera eramaten baikaitu: baldintza horietan joan behar al dut?"

Babes Kutxa Lanku eta Elkartearen bidez lotutako saioetan egikarrituko da. Orduan, neurriak ez lioke errealitate osoari erantzungo, Lankuren eta Elkartearen bidez antolatutako saioak plazaren %35 baitira. "Nik uste dut berri ona dela hori martxan jartzea: bai praktikoki izan dezakeen ekarpenagatik, baina baita arazoa bistaratzegatik ere", amaitzen du Iturriagak.



Puntua jarrita

IKER GOROSTERRAZU ELIZAGOIEN

Erantzun aunitz izan ditzakeen galdera egin didazu Amaia, eta erantzun bakar bat ere ez dut modu seguru batean errateko. Horregatik ez diot zure galderari erantzunik emanen seguraski.

Guraso izan naizenetik ni aldatu naizela erranen nizuke, beraz nire aldaketa horrek gainerako kontu guztietan eragina izanen duela ez dago dudarik. Bertso eskola bakoitzaren profila ere desberdina da, eta ez da sekula berdina izanen eremu euskaldun eta bertsozale bateko bertso eskola edo eremu erdaldun batekoa. Izan ere, bertsoa seguraski aitzinetik ezagunagoa izanen dute batzuek (dela etxetik edo herrian bizitakoagatik), eta bertzeentzat hezkuntza arautuan jaso izanak bertso eskolan izena emateko orduan eragin zuzena izanen du.

Edozein dela ere kasua, beti eta aunitzetan aipatu izan dugun bezala, bertso eskola espazio segurua eta goxoa izatea da bertsozalearen transmisio egokirako lehendabiziko baldintza. Behin hori bermatua izaki, lagun giro atseginean eta gozamenetik bertsoan arituz edozein lagun bertsozaleetako da neurri batean. Horrela kontatuta denak erraza dirudi baina aritu denak badaki taldeko giroak zenbat baldintzatzen duen bertso eskolan.

Hau guztia pasa ahal izateko, ordea, lehenbizi bertso eskolan izena eman behar du batek. Gaur egunean eskolaz kanpoko jardueren zerrenda zein den ikusita ia miraria da haur batek bertsoan aritu nahi izatea eta hala nahi badu horretarako denbora tarte bat hartzea. Helduen bertso eskolak ere erreferentzia ederra dira ttikientzat eta ziklo osoa osatu duten eskualdeetan bertsozaleetasuna naturalki transmititu da.

Irati, zu gazte zinela hasi zinen bertso eskolan eta nondik ailegatu zara bertso mundura? Nolako da zure esperientzia bertso eskolan?

Koplak

Apirilaren 5ean jokatuko da Arabako Kuadrillarteko finala

Egun guztiko egitaraua prest dago Arabako Kuadrillarteko finalerako, apirilaren 5erako. 11:30ean elkartuko dira Gasteizko Aihotz Plazan, eta plazaz plaza ibiliko dira. Finalerdi bakoitzeko irabazleek kantatuko dute, eta bi kuadrilla onenak pasako dira bazkalosteko saiora. 16:30ean da finala, baina aurretik, bazkaltzeko aukera ere izango da Conde de Álava jatetxean. Bazkarirako txartelak salgai daude bertsozaleak.eus atarian.

Poto-Finixa



Mozorroan ezkutatuta...

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Martxoaren 30ean egingo da Aitor Sarasua bertso paper lehiaketako sari banaketa

Epaimahaiak erabaki du zeintzuk diren aurtengo Aitor Sarasua bertso paper lehiaketako saridunak. Parte hartzea oso zabala izan da: orotara 75 bertso sorta jaso dira hiru sailetan banaturik. Sortak www.bertsozale.eus atarian dituzue ikusgai. Sari banaketa ekitaldia martxoaren 30ean izango da Itsasuko Sanoki gelan, bertso bazkariarekin batera. Kantuan Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabal izango dira eta Ortzi Idoate ariko da gai-emaila lanetan. Bazkarirako erreserbak 0674985475 telefonoan egin daitezke.

